

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

894

46/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 2koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez kargutik kentzen baita María Pilar Sánchez Garduño, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko zuzendaria.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 5eko 655/2017 Ebazpenaren bidez (2017ko maiatzaren 22an argitaratua), María Pilar Sánchez Garduño andrea Bidasoko ESiko Pertsonaleko zuzendari lanpostua betetzeko izendatu zen.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Pilar Sánchez Garduño andrea Bidasoko ESiko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2023ko urtarrilaren 8ko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Bidasoko ESleri Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 2a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.